

Zuhaitzak landatuta ez da beti lortzen karbono gehiago finkatzea



ARG.: J.G.

Zuhaitzak landatzea da klima aldaketari aurre egiteko askotan mahai gainean jartzen den proposamenetako bat, basoek karbono-hobi gisa funtzionatzen dutelako, atmosferan dagoen karbonoa finkatuz. Baina zuhaitz-landaketen eragin hori kalkulatzeko erabili izan diren irizpideak okerrak izan litezke, [Nature Sustainability aldizkarian argitaratutako ikerketa baten arabera](#).

Datu berrien argitara, zuhaitz-landaketen karbonoa finkatzeko ahalmena jakiteko, ekosistema eta klimaz gain, kontuan hartu behar dira zuhaitz-mota, lurzorua historikoki izan duen erabilera eta zoru-mota.

Txinako iparraldeko 619 lursailetan egiaztatu ahal izan dutenez, karbono gutxi dagoen lurzoruetan, basotzeak karbono-dentsitatea handitzea ekarri du. Baina aurretik karbono asko dagoen lurzoruetan, berriz, karbono-dentsitatea txikitu egin da zuhaitzak landatzean.

Hortaz, zuhaitz-landaketek karbonoa metatzeko duten ahalmena gehiegi balioetsi dela uste dute, eta lehendik karbono asko dagoen lekuetan, zuhaitzak landatzea baino eraginkorragoa izan litekeela bere kabuz leheneratzen uztea. ●

Elgorria uste baino askoz lehenagokoa da

Elgorriaren birusa K.a. lehen milurtekoan agertu zela kalkulatu dute. Uste zena baino askoz lehenago litzateke hori, eta bat egiten du Eurasian eta Asiako hegoaldean eta ekialdean asentamendu handiak sortu ziren garaiarekin. [Science aldizkarian eman dute ikerketaren berri](#).

Uste da behi-izurriaren birus jada desagertua giza-kietara pasa zenean sortu zela elgorriaren birusa. Eta jotzen zen IX. mendearen amaieran gertatu zela, nahiz eta nahiko eztabaidatua izan den data hori. Orain, birusaren jatorria argitu nahian, lehenik 1912ko elgorri-kasu batean jasotako birika-lagin batetik birusaren genoma berreraiki dute ikertzaileek. Eta, ondoren, konparatu dituzte 1912ko genoma hori, 1960ko beste bat, gaur egungo 127, behi-izurriaren birusaren genomak eta PPRV izeneko behien beste birus batenak. Hala, kalkulatu dute K.a. 1.174. eta K.o. 165. urteen artean agertu zela elgorria. Ikertzaileek uste dute behien birusaren arbaso bat milaka urtez egon zela abereetan, eta K.a. lehen milurtekoan egin zuela jauzi gizakietara, asentamenduak handitzen hasi ziren garaian, hain zuzen ere. ●



1912ko elgorri-kasu baten birika-lagina. ARG.: Navena Widulin/Berlin Museum of Medical History at the Charité.